



2009KO OTSAILAREN 3KO
EZ-OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta bederatziko otsailaren hiruan, iluntzeko sei terdietan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean, ez-ohiko batzaraldia egin asmoz. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Xanet Barreras Jauregi, Lurdes Garmendia Guerra, Xabier Arrasate Aierbe, Inazio Estensoro Eskisabel, Juan Manuel Serna Portugal, eta Javier Moreno Gonzalez de Lara.

Felix Urkola Iriarte, Amagoia Naldaiz Mingo, Inazio Barandiaran Aldasoro, Ricardo Crespo Rubio eta Iñaki Saldaña Herrero zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurutuzak dihardu.

I.- EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEETAKO MAHAIKIDEAK IZENDATZEKO ZOZKETA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren 2009ko martxoaren 1ean egingo diren Europako Legebiltzarrerako Hauteskunde Mahaietarako partaideen aukeraketari ekiten zaio, zozketa bidez, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeetarako den ekainaren 15eko 5/1990 Legearen 43 artikulua xedatutakoaren arabera.

Zozketaren ondoren Lazkaoko Udalerrian eratuko diren 6 mahaietarako presidente eta bokalak aukeratzen dira, titular nahiz ordezkioak, hauen datuak horretarako prestatutako orrietan jasotzen direlarik.

II.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta besterik gabe, Alkate Jaunak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpiak hamar gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

